

USO SARETAN ATZEMANA

AIREA: IRUTEN ARI NUZU.

Sortu naiz iparrean udaren astean,
 Uso ume bakarra, oatze batean;
 Ait'amek naute azi (*bis*):
 Lumatu artean
 Zoriona gozatuz iruek bakean.

Mundurats agertzean biluzia nintzen;
 Amatok egaipetan ninduen berotzen;
 Az kurriaren biltzen (*bis*)
 Aita zen ibiltzen:
 Nork erran ni tipian zenbat gosta naizen?

Gaztegi nuen egin oatzetik yauzi;
 Lagunen sinesteak daut egin arazi;
 Sasirat erortzea (*bis*)
 Nuen irabazi.
 Amaren biotz mina ordutik zen asi.

Ume zentzu gabea, zer zautzu gertatu?
 Ongi lumatu gabe nai egaldatu?
 Ez da bear itsua (*bis*)
 Gidaritzat artu!
 Ez bertzen erranari sobera fidatu.

Zure egalak aski luzatu orduko
 Ostoa eror denbora zauku etorriko
 Iparretik egori (*bis*)
 Gare airatuko,
 Ni segituz etzare bidean galduko.

Amari eman itza nuelakotz autsi,
 Eskual-errian nintzen, saretara yausi;
 Andik egaldatzea (*bis*)
 Ezin ardietsi,
 liztari zaarrak nau kayolan etsi.

Orduan zaut gogora amaren errana,
 Buru gaīstoa dela beti atzemana;
 Bazterrerat utzirik (*bis*)
 Bidēska chuchena,
 Ondikotz erori naiz etsaiaren gana.

An nindagon orduan nigar saminetan,
 Biziaz esitua, ikara zainetan;
 Amarekin bearra (*bis*)
 Aldāska gainetan,
 Sartua ondikozko presundegi artan.

Iduzkia bīstatik zenean apaldu,
 liztariak zuen atea zabaldu;
 Lotzera zoalarik (*bis*)
 Nuen enganatu,
 Eskuaren azpitik zalu eskapatu.

Zenbat uso oinezko egalik gabeko!
 liztariak aier, etaz yabetzeko
 Kasu egin dezaten (*bis*)
 Ez naiz īsilduko;
 Bertzela saretara tuztela bilduko.

PIERRE DIBARRART,

Baigorriko Eliza-Kantariak egina.

